

Denboraren makina
Dracula kondearen historia

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Triano (Bizkaia),
meatzarien ordeztangozaleak

ARGIA

erdiko kainera

kultura eta aisia

Idazle ikusezinen arrasto beltza

Erresuma Batuko lehen ministro izandako Winston Churchillek 1953an irabazi zuen Nobel saria ez ote zuen beste batekin partekatu behar? Zerikusirik izan al zuen Deustuko Unibertsitateko irakasle eta historialari Fernando Garcia Cortazarrek Olarra enpresari eta senatari zenaren *Postfranquismo, proyecto de futuro* liburuan? Ruben Dario poeta eta Alejandro Sawa idazlea zergatik haserretu ote ziren? Galdera hauen guztien atzean idazle beltzen arrasto iluna sumatzen da. Ez du azalaren kolorearekin zerikusirik, nahiz onarpen ezak belzten dion kopeta. Beltza deritzo beste batentzat ilunpean egiten duelako behar. Behar zikina, itzalekoa. Ustez ikusezina, baina bidean uzten dituen lorratzak usteak usteltzen ditu, tanta beltzak egun zuri batean bezain ikusgarriak direlako, ustez, beltzaren lorratzak.

PABLO ARANGUREN



GH0ST_STRIATIC/CC-BY-SA

Besteentzako lan egiten duen idazlea

INGELESEZ GHOSTWRITER bezala ezagutua idazle profesionala da. Espainian *Negro literario* deritzo. *Nègre* da Frantzian. Ezkutuko idazlea edo beltza hemen. Izenak hamaika, baina egitekoa bakarra: beste batentzat idaztea. Itzalean egiten du lan, onespenez jaso gabe, baina bere jarduna ez da klandestino, legez kanpokoa dirudien arren erabat baimendua baitago.

Autoreak eta itzaleko idazleak liburua idatzi aurretik adosten dute prezioa. 2.000 ala 500.000 mila ale saldu, beltzak hasieran hitzartutakoa kobratzen du. Tokian toki eskulanaren prezioa ezberdina da. Kanadan esaterako, Idazleen Elkarteak gutxieneko tarifa ezarri du *ghostwriter*-entzat: 200-300 orrialdeko liburuagatik 25.000 dolar (17.000 euro). Erresuma Batuan eta AEBetan ere zifra horien inguruan dabilta. Indian orrialde kopuru bereko liburuagatik 3.000-5.000 dolar (2000-3500 euro inguru). Ezetz asmatu herrialde horien artean nora jotzen duten editorialek ezkutuko idazleen bila?

Euskal Herrian zer?

Gure herri bedeinkatu honetan ezkutuko idazleek ere badute kabida, ez ordea haren jardunaren aitortzak. ARGIAK euskal literaturaren ingurumarian erreferente diren hainbat idazleren iturritik edanez jakin du halakoak existitzen direla, baina hortik aurrerako inbestigazio lana hondarrean hazia ereitea bezalako da, antzua.

Haatik, idazle beltzaren haritik tiraka, beste kontzeptu batekin egin dugu topo: pinttoarekin. Josu Zabaletaren arabera halakoei zuzentzaile esan ohi zaie eta ez diegu inoiz merezi bezala eskertuko haiek egiten duten lana. Gaur egun hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen Rosetta enpresan ari da lanean Zabaleta eta 2001. urtean Literatura Itzulpen Onenaren Euskadi saria jaso zuen. Kasu batzuetan idazleak berak egiten du zuzenketa eskaria eta idazlearen eta zuzentzailearen artean harreman estua sortzen da. “Tamalez, kasu askotan testuaren lehen egileak ez du zuzentzailearen lana ezertarako kontuan hartzen. Okerragoa ere izan daiteke eta –izan da–: lan batek argitaraturik izan dituen arazoen errua zuzentzaileari botatzea edo zuzentzailearen lana guztiz estali nahi izatea, adibidez”. Zabaletaren esanetan, begi zorrotz samarrez irakurtzen bada, ordea, idazle bat baino gehiago dago lan batetik bestera estilo desberdinak dituenak –ideiak kontuan hartu gabe– zuzentzaile bakoitzak bere arrastoa uzten baitu. Zuzentzaileak lan batean esaldi bat bera ere zegoen bezala uzten ez dituen kasuak ezagutzen ditu eta ez idazle edo itzultzaile ezezagunena; “norena da testu hori? Irakurleak ez al du ezagutzen gezurrezko egile bat?”, galdetu du Zabaletak.

“Testugileak badaki zuzentzaile bat izango dela ondoren, eta horren aurrean askok arreta gehiago jartzen duten bezala, beste batzuei inolako arretarik gabe idazteko balio die. Guztiz testu negargarriak irakurri behar izan ditu zuzentzaileak. Irakurri bakarrik ez, zuzendu ere bai, ia-ia sortu, txineratik itzuli, testugileak testua idaztean gogoan zer izan zezakeenaren hipotesirik bitxienak eginez”. Zeren ondorioa da hori? Zabaletaren aburuz testugileak oso hizkuntz konpetentzia urria dauka. Alegia, komunikatzeko tresna urri eta akastun batez ezin daitezke diskurtso ongi lotu eta ongi moldatuak sortu.

Horretaz gainera, idazleen munduan bada beste lanbide bat: *re-writing* edo berridazlearena. Testua zuzendu ez ezik birmoldatu egiten du: idazlearen ideiak, gidoia hartu eta beste era batera moldatzen ditu.



GEORGE1652/CC-BY-NC-ND

Beltzak beti uzten du bere lorratza

Orain gutxi *El Mundo* obragatik Planeta Saria eskuratu duen Juan José Millás idazle espainiarra itzaleko idazle izan zen bere garaian eta *El País* egunkariko *Domingo* gehigarrian adierazpenok egin zituen: “Izugarri gogoko nuen beste autore batzuei buruzko aipamenak egitea euren jatorria azaldu gabe, akrostikoak sortzea, nire lanaren jabearekiko azpikoan aritzea.... zure lanaren fruituak beste batek jasotzean geratzen zaizun ordain bakarra da”.

Ana Rosa Quintana telebista aurkezle espainiarrak halako azpijokorik nozitu zuen. 2000. urtean, *Sabor a Hiel* liburua bere sinadurapean kaleratu zuten. Sasoi hartan (orain ere bai) Espainiako telebista kateentzako aurpegirik preziatuenetarikoa zen eta inor gutxi harritu zen *Sabor a Hielek* izan zuen harreraz. Aste gutxiaren buruan 100.000 ale saldu zituen eta gehiago ere izango ziren, harik eta *Interviú* aldizkariak liburua plagioak jota ustelduta zegoela salatu izan ez balu. Danielle Steel AEBetako idazlearen *Family Album* eta Angeles Mastretta mexikarraren *Mujeres de ojos grandes* nobelen parrafoak hitzez hitz kopiatu zituela leporatu zioten. Hitzez hitz ez, Ward eta Faye izenen lekuan Francisco eta Adriana jarri zituen, horregatik aurkezleak gertatu zena akats informatiko baten ondorioz izan zela argudiatzean inork ez zion sinetsi. Ebidentziaren aurrean gertatua aitortu beste biderik ez zuen izan. Bere lehen nobela zela eta laguntza eskatu ziola bere konfiantzazko pertsona bati –beltzari– eta hark ziria sartu ziola.

Behar beharrezkoak AEBetan

Ezkutuko idazleen jarduna horren premiazkoa bada, orduan zergatik aritzen dira itzalean? Galdera horrekin hasi zuen Gregory Baruch *Washington Post* egunkariko kazetariak ezkutuko idazleei buruzko artikulua. AEBetan kontaezina da zenbat liburu kaleratu diren autoreak lerro bakar bat bera ere idatzi gabe. Gehiago saltzen du aurpegi batek testu batek baino; merkatuak bere egin duen legea da eta editorialak horretaz baliatzen dira. Politikari, aktore... ospetsu askoren idatzien atzean beltz baten eskua dago. Hillary Clinton senatariak 8 milioi dolar ikustean (5,5 milioi euro), begi egarritz gelditu nahi ez eta barruak hustu zituen *It Takes a Village* biografia liburuan, bere senar Bill Clintonen afera sexuala gori-gorian zegoenean. Barbara Feinman idazlearen “laguntza” izan zuen. Horregatik, Feinmanek orain arte ezkutuko idazle batek inoiz jaso duen diru kopururik handiena jaso zuen, 500.000 dolar (350.000 euro inguru). *Time* magazineko arti-



Ronald Reagan AEBetako presidente izan zen 1981etik 1989ra. Gizon ezaguna izaki biografia liburua kaleratu zuen, baina ez zuen lerrorik idatzi.

kulu baten arabera, prezio horren barruan idazleak ezin zuen inorekin hitz erdirik ere egin gertatutakoaz.

Simon & Shusters argitaletxeak Ronald Reagan AEBetako presidente ohiaren *An American life*, 729 orrialdeko biografia liburua argitaratu zuenean Reaganek haxe esan omen zuen: “Entzun dut liburua negargarria dela. Halako batean liburua irakurriko dut”. Robert Lindsey idazleak egin zuen iluneko lana.

Pamela Harrimanen kasuak ere bazterrak astindu zituen. Harriman AEBetako enbaxadore izan zen Frantziar Clintonen garaian, 90eko hamarkada hasieran. Christopher Ogden izeneko idazlea bere memoriak idazteko kontratatu zuen 1991n. Entrebista askoren ostean –kasik 40 orduko grabazioa zuen Ogdenek– proiektua bertan behera gelditu zen eta Harrimanek ez zion deus ordaindu. Beltzak orduan, bildu zuen informazio guztiarekin *The life of the party* liburu biografikoa kaleratu zuen, zeinak salmentetan harrera ezinhobea izan zuen.

Medikuntzan amarruak berdin balio du

AEBetan literaturaren mugak gaintu ditu idazle beltzaren iluntasunak. Interneteko zurrumurruek diotenez, farmazia etxeek dirua ordaintzen diete idazle beltzei medikuntza edo egunkari zientifikoetan merkatuatu berri dituzten botikei buruzko testuen truk. Idatziok gainera, gizartean prestigioa duten fisikari, zientzialari, medikuntza akademietako kide edota medikuntza elkarteetako presidentek sinatzen dituzte. Testu horietan dena delako sendagaia mirarigiletzat jotzen da eta arlo ezberdinetako prestigiozko profesionalen sinadurapean, tontoa ontzira erori nola, hala irensten du jendeak.

“Ezkutuko idazleak erabat legezkoak dira”

Zer egin behar da itzaleko idazle izateko? galdera Interneteko bilatzaile batean idatzi eta Bartzelonako Premura editorialarekin egin dugu topo. Beltz-zerbitzua eskaintzen zutela ikusi eta bertara deitu dugu informazio egarritz. Zuzendariak berak hartu du telefonoa. Honatx solasaldiaren funtsa.

Nobela historiko bat egin nahi dut eta horretarako datu mordoa daukat, baina ofizioa eta gaitasuna falta. Leku egokira deitu al dut?

Bai. 12 idazleko taldea daukagu Espainiako hainbat probintzian banatuta. Uneotan 14 proiektu dauzkagu esku artean: biografiak, nobelak eta tesina bat. Ez dizut ukatuko, ez da merkea. 200-300 orrialdeko biografia batek 4.000-5.000 euro balio du. Nobela bat garestiagoa izan daiteke pertsonaiak, trama, girotzea sortu behar direlako. Zenbat eta dokumentu gehiago bidali orduan eta merkeagoa da, dokumentatzea delako lanik nekezena.

Azken lanaren kalitatea nola bermatzen duzue?

Azken batean taldeko lana da. Idazleak lehenbiziko kapituluak eta nobelaren proiektua idaztean nire eskutan uzten

du. Ni editore eta idazlea naiz. Oniritzia ematen diogunean bezeroari ematen diogu ea zer iruditzen zaion eta idazlea aholkatzen dugu. Lan ona bermatzen dizugu eta nahi izanez gero lehiaketetara edota editorialetara eramane dezakezu. Ez duguna bermatzen da azken lanaren publikazioa.

Hau guztia legezkoa al da?

Erabat. Konfidentzialtasun eta aholku literario kontratuak sinatzen dira beti. Ezkutuko idazleak eta Premurak sekretua gordetzen dute; egiletza zurea da.

Behin liburua nire izenean kaleratzean idazleak izango al du errekonozimendurik?

Nahi ez baduzu ez. Hori zeure esku dago.



tzi dutenari buruz erantzunak jartzen dituzte izen desberdinekin. Blogetarako *ghostwriter*-ak eskaintzen dituzten enpresen arabera halakoak zilegitasun osoko merkatu teknikak dira. Ez zen iritzi berekoa izan *The Los Angeles Times* egunkaria Michael Hiltzik kazetari izarraren bloga bertan behera utzi zuenean. Kazetari hark pseudonimo bat erabiltzen zuen bere blogean ezezik besteetan ere iruzkinak uzteko. Hugh Hewitt irratia esatariaren eta Patrick Frey abokatuaren blogetan, biak ala biak kontserbadoreak eta fama handiko pertsonak, izugarriak bota zituen *Mikekoshi* izengoitia erabiliz, baita harri-patu ere. Hiltzik ez zen kazetari arrunta. 1999an Pulitzer Saria

Sinaduragatik 1.000 dolar inguru kobratu ohi dute (680 euro), baina irabaziak prestigioaren arabera gehiago ala gutxiago izan daitezke. Hezkuntzan lan egiteko edo euren aurkikuntzetarako aitzakian kobratzen dute. Hainbat farmazia industriak, editorialek eta mediku elkartek legez kanpokotzat jo dute, AEBetako legedia urratzen dutelakoan. Zilegitasunik ez duen baimendutako praktika arrunta da.

Onkologian eta psikiatrian erabiltzen dira batez ere halako trikimailuak.

Blog-ak ere beltzuta

Politikariek, kazetariek... itzaleko idazleak dituzte euren blogak idazteko. Areago, ida-

Premura
Editorialaren
konfidentzialtasun
kontratua.

irabazi zuen Chuck Philipsekin batera entretenimenduaren industrian ustelkeria afera argitara eman zuelako eta berripaper horren zutabegile puntakoena zen. Ahaztu gabe galderak erantzun ditzadan. Nobel sariagatik Churchill ministro zenak dirua irabazi bai, baina fikziozko lanik sekula egin gabe. Fernando Garcia Cortazarrek Olarraren liburua iluneko beharra egin zuen. Alejandro Sawa eta Dario haserretu egin ziren. Loria guztia bigarrenak eramaten zuen, testuak lehendabizikoak idatziagatik. Dirua ere usaintzen ez zuenez hauxe idatzi zion Dariori: “Niretzako ez zara ezer, hilik bazeunde bezala. Areago, inoiz existitu ez bazina bezala”. ■